

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA

**ITSAS NABIGAZIOA, ARRANTZA ETA GARRAIOKO GOI-MAILAKO
TEKNIKARIA, ETA
ITSASONTZIKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN IKUSKAPEN ETA
KONTROLEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

1. PROBA/1. eta 2. ZATIAK

A EREDUA

Durango, 2012-01-28

1.etik 55. arteko galderak lehen probaren lehen zatiari dagozkio

1 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA,...

- 1a) Nazioaren subiranotasuna Gorteetan datza.
- 1b) Nazioaren subiranotasuna monarkia parlamentarioan datza.
- 1c) Nazioaren subiranotasuna Espaniako herrian datza.
- 1d) Nazioaren subiranotasuna Estatua osatzen duten nazioetan datza.

2 ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETA. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 2a) Bost mila biztanle baino gutxiagoko udalerriek ez dute nortasun juridiko propiorik.
- 2b) Udalek gai jakin batzuei buruzko erregelamenduak onartzeko gaitasuna daukate.
- 2c) Gaur egun, Estatuak ez du eskumen esklusibork administrazio publikoen araubide juridikoko oinarriak arautzeko.
- 2d) Autonomia-erkidegoek ez dute eskumenik oinarrizko legeak garatzeko legeak onartzeko.

3 AUTONOMIA ERKIDEIGO HAUETATIK, BATEK EZ ZUEN AUTONOMIA LORTU KONSTITUZIOAREN 151. ARTIKULUAN EZARRITAKO BIDEAREN BITARTEZ; ZEIN?

- 3a) Katalunia.
- 3b) Euskal Autonomia Erkidegoa.
- 3c) Nafarroa.
- 3d) Andaluzia.

4 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 4a) Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuari Gernikako Estatua ere esaten zaio.
- 4b) Hautesleek zuzenean hautatzen dute lehendakaria, lau uterik behin egiten diren hauteskundeetan.
- 4c) Lehendakariak promulgatzen ditu Eusko Legebiltzarreko legeak.
- 4d) Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioen estatutua Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboa da, baina Estatuak funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarrien gainean duen eskumena errespetatu behar du.

5 ZEIN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBOA?

- 5a) Ingurumenaren gaineko eskumena.
- 5b) Udal barrutien mugaketak, lurralte historikoei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.
- 5c) Laneko legeria.
- 5d) Arrantza-arloaren antolamendua.

6 NOIZKOA DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA?

- 6a) 2004koa.
- 6b) 2006koa.
- 6c) 2003koa.
- 6d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

7 ZEINEK ONARTU ZITUEN GENEROAREN ARABERAKO INPAKTUAREN EBALUAZIOA EGITEKO ZEIN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK KENTZEKO ETA HAIEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK SARTZEKO JARRIBIDEAK?

- 7a) Emakundek.
- 7b) Gobernuaren Kontseiluak, akordio baten bidez.
- 7c) Gasteizko Legebiltzarrak.
- 7d) Onartzeke daude.

8 SARBIDE ELEKTRONIKOARI BURUZ INDARREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA...

- 8a) Administrazioak, ez badu nahi, ez du agiri elektronikoak euskarri elektronikoan gorde beharrik.
- 8b) Administrazioak hautatzen du beti zein aplikazio baliatu nahi duen herritarrekiko harremanetan, zenbat balio duen alde batera.
- 8c) Kasuan kasuko administrazio publikoaren zerbitzarien kokalekua da egoitza elektronikoa.
- 8d) Herritarrek izapideak elektronikoki egiten laguntzeko prestatutako langileak izango ditu Administrazioak.

9 ORDENAMENDUKO ZEIN ARAUK DAUKA ZUZENEKO LEGETIMITATE DEMOKRATIKOA, HERRIAREN ORDEZKARITZAREN ARAUTZE-JARDUERAREN ONDORIO DIRELAKO?

- 9a) Arau guztiak; izan ere, estatu demokratiko batean bizi gara, non erakunde guztiak demokratikoki hautatzen diren.
- 9b) Legeek bakarrik.
- 9c) Konstituzioak bakarrik.
- 9d) Legeek eta Spainiako Konstituzioak.

10 LEGE-DEKRETUAK:

- 10a) Gobernuak onartzen ditu, gehiengo osoz.
- 10b) Gobernuak onartzen ditu, Legebiltzarrak baimena, berariaz edo tazituki, eman ondoren.
- 10c) Ezin dituzte Konstituzioaren I. Tituluan arautzen diren funtsezko eskubideetan eragiten dituzten materiak arautu.
- 10d) Promulgatu eta 30 egun igaro ondoren hasten dira indarrean.

11 ABOKAZIOA:

- 11a) Hierarkiaren printzipioaren arabera, teknika horren bitarte, Administrazioko organo batek jarrai dezake funtzionatzen titularrik izan gabe ere, edota titularra kanpoan edo gaixorik badago.
- 11b) Konpetentzia-printzipioaren arabera, teknika horren bitarte, goragoko organoek aukera dute beheragoko organoren baten eskumena kasu jakin batean gauzatzeko.
- 11c) Hierarkia-printzipioaren arabera, teknika horren bitarte, goragoko organoek aukera dute beheragoko organoren baten eskumena kasu jakin batean gauzatzeko.
- 11d) Organoen arteko lankidetzako teknika bat da, baita administrazioen artekoa ere.

12 INDARREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA, ERREFUSATZEARI AZKAR EMAN BEHAR ZAIO KONPONBIDEA...

- 12a) Eta errefusatuak astebete dauka esan beharrekoa esateko.
- 12b) Eta errefusatuak egun bat dauka esan beharrekoa esateko.
- 12c) Eta errefusatuak bost egun natural dauzka esan beharrekoa esateko.
- 12d) Eta errefusatuak lehenbaileen esan behar du esan beharrekoa.

13 NON SARTZEN DA ADMISTRAZIO PROZEDURAREN ARAUBIDEA?

- 13a) Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legean.
- 13b) Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legean.
- 13c) Konstituzioan.
- 13d) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean.

14 INDARREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA,...

- 14a) Pertsonek, oro har, ez dute sarbide zuzenik artxiboetara.
- 14b) Informazioa sarbide izateko eskubidearen titulartasuna mugatua da.
- 14c) Dokumentu publikoetara sarbidea izateko eskubidea ohiz kanpokoa da.
- 14d) Aurreko erantzun horien artean bat ere ez da zuzena.

15 ZER DA EGINTZA PLURAL BAT?

- 15a) Gaiaren funtsa zeharka erabakitzentzen duena.
- 15b) Aurkaratu daitekeena.
- 15c) Orokorra da, eta, horrenbestez, zehaztu gabeko pertsonen kopuru bati zuzentzen zaio.
- 15d) Defentsa gabezia sortzen duena.

16 SAILBURUORDETZAK SAILBURUAREN ESKUMENEKOA DEN EGINTZA BAT EMATEN BADU...

- 16a) Egintza deuseztagarria eta konbalidatu daiteke.
- 16b) Egintza deuseztagarria da, baina ez konbalidagarria.
- 16c) Egintza erabat deuseza da beti.
- 16d) Egintza hori ez dagoela ulertzen da.

17 DATU HAUETATIK, BAT EZ DA EZINBESTEKOTZAT JOTZEN PROZEDURA BATI EKITEKO ESKABIDE-ORRIAN, ZEIN?

- 17a) Zein administrazio-unitatera jotzen den.
- 17b) Eskabidea zer ordutan aurkeztu den.
- 17c) Eskatzailearen sinadura.
- 17d) Eskabidearen oinarri diren gertakariak.

18 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 18a) Administrazioak edozein unetan alda ditzake eskabideak eta errekursoak aurkezteko epeak.
- 18b) Administrazioak arauak ezarritako epeak laburtu ditzake, baina inoiz ez errekursoak aurkeztekoak.
- 18c) Administrazioak arauak ezarritako epeak laburtu ditzake, baina inoiz ez eskabideak aurkeztekoak.
- 18d) Administrazioak ez baditu epeak betetzen, erantzukizunak eskatu ahal zaizkio.

19 NOIZ EBATZI BEHARKO DA EGINTZA KALTEGARRITZAT JOTZEKO ESPEDIENTEA?

- 19a) Egintza administratiboa eman zenetik sei hilabete igaro baino lehen.
- 19b) Egintza administratiboa eman zenetik sei urte igaro baino lehen.
- 19c) Egintza administratiboa eman zenetik lau urte igaro baino lehen.
- 19d) Prozedura hasi baino lau hilabete igaro baino lehen.

20 ADMINISTRAZIOAK...

- 20a) Ezin ditu egintza deuztagarriak ofizioz berrikusi.
- 20b) Ezin ditu egintza desezak ofizioz berrikusi.
- 20c) Ezin du inolako egintzarik berrikusi.
- 20d) Mota guzietako egintzak berrikus ditzake, ofizioz.

21 ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUN JURIDIKOA...

- 21a) Diziplinazkoa baino ez da.
- 21b) Zigorrezkoa baino ez da.
- 21c) Ondarezkoa baino ez da.
- 21d) Diziplinazkoa, zein zigorrezkoa, zein ondarezkoa da.

22 NOLA DEITZEN ZAIO ERRUZ SORTUTAKO KALTE BATEN ORDAINIAN ORDAINDUTAKO ZATI BAT ERREKUPERATZEKO ADMINISTRAZIOAK AGINTARI BATEN AURREAN GAUZATZEN DUEN EGINTZARI?

- 22a) Kalte-ordaineko egintza.
- 22b) Errekuperazioko egintza.
- 22c) Konpentsazioko egintza.
- 22d) Itzulerako egintza.

23 DATU PERTSONALAK BABESTEARI DAGOKIONEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN...

- 23a) Ez dago datuak babesteko legerik.
- 23b) Estatuko legea baino ez dago.
- 23c) Lege bakarra eman zen, Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzekoa.
- 23d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

24 DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA...

- 24a) Bitzitza sexualari buruzko datuak tratatu daitezke kasu batean soilik: titularren berariazko adostasuna, idatzizkoa, izanez gero.
- 24b) Osasunari buruzko datuak tratatu daitezke kasu batean bakarrik: titularren berariazko adostasuna, idatzizkoa, izanez gero.
- 24c) Pertsona baten arrazarekin zerikusia duten datuak tratatu daitezke, titularren berariazko adostasuna izanez gero (ez da beharrezkoa idatzizkoa izatea).
- 24d) Pertsona baten erlijioarekin zerikusia duten datuak tratatu daitezke, titularren berariazko adostasuna izanez gero (ez da beharrezkoa idatzizkoa izatea).

25 ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUA...

- 25a) Estatuko lege batek arautzen du.
- 25b) Euskal Funtzio Publikoaren Legeak arautzen du.
- 25c) Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek arautzen du.
- 25d) Langileen Esatutuak arautzen du.

26 AUTONOMIA ADMINISTRAZIO OROKORREKO FUNTZIONARIOEK EGINDAKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK...

- 26a) 2 urte igaro ondoren iraungiko dira.
- 26b) 5 urte igaro ondoren iraungiko dira
- 26c) Urtebete pasa ondoren iraungiko dira.
- 26d) 3 urte igaro ondoren iraungiko dira

27 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAREN ARABERA, LANPOSTU BATEN TITULARRA HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETETZETIK SALBUETSII DAITEKE...

- 27a) Berez, planifikazio-aldi bakoitzaren hasieran berrogeita hamabost urte baino gehiago baditu.
- 27b) OHO baino ikasketa-maila gutxiago badauka.
- 27c) Ez badu Euskal Autonomia Erkidegoan ikasi.
- 27d) Ezin da, inola ere.

28 ADMINISTRAZIO MODERNOAREN BAITAN OINARRIZKO DA “BEZEROAK” BEHAR BEZALA IDENTIFIKATZEA ETA SEGMENTATZEA. ZER ERABILIKO DA HORRETARAKO?

- 28a) CRM moduko lanabesak (bezeroekiko harremanak kudeatzeko programa).
- 28b) CRM moduko lanabesak (herriarrekiko harremanak eraginkortasunez eta azkar bideratzeko programa).
- 28c) GRC moduko lanabesak (bezeroekiko harremanak kudeatzeko programa).
- 28d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

29 ADMINISTRAZIOAREN ZENBAIT INFORMAZIO-MOTA DAUDE, ZERI BURUZKOAK DIREN KONTUAN HARTUTA; ZEINTZUK?

- 29a) Garranzitsua eta kontingentea.
- 29b) Administrazioari buruzkoa eta partikularra.
- 29c) Administrazioari buruzkoa eta herritarrei buruzkoa.
- 29d) Ez dago zenbait informazio-mota, baizik eta informazio desberdinak.

30 ADMINISTRAZIOKO TERMINOLOGIA HIZKUNTZA EZ SEXISTARI EGOKITZE ALDERA, HARTZAILEEN ARABERA, HONAKO HAUEK BEREIZ DITZAKEGU:

- 30a) Agiri itxiak eta agiri irekiak.
- 30b) Agiri publikoak eta agiri pribatuak.
- 30c) Agiri orokorrak eta agiri zehatzak.
- 30d) Ez da agiri-bereizkitarik egiten.

- 31 DOKUMENTU HAUETATIK, ZEINTZUK EZ DITUZTE ERABILTZEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK HERRITARREKIN KOMUNIKATZEKO?**
- 31a) Akordioak.
31b) Jakinarazpenak.
31c) Gutunak.
31d) Ziurtagiria.
- 32 DOKUMENTU-MOTAK: DOKUMENTUAREN HELBURUA IRITZIA EMATEA BADA,...**
- 32a) Agindu bat erabiliko da.
32b) Gutun bat erabiliko da.
32c) Dekretu bat erabiliko da.
32d) Aurreko dokumentatik batek ere ez du iritzia ematea lehentasunezko helburu.
- 33 DOKUMENTU-MOTAK: DOKUMENTUAREN HELBURUA INFORMATZEA BADA,...**
- 33a) Liburuxka bat erabiliko da.
33b) Eskabide bat erabiliko da.
33c) Akta bat erabiliko da.
33d) Aurreko dokumentatik batek ere ez du informatzea, oro har, helburu nagusitzat.
- 34 ZEIN DA LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEKO 31/1995 LEGEAREN HELBURU NAGUSIA?**
- 34a) Laneko arriskuak prebenitzea.
34b) Langileen osasuna babestea.
34c) Langileek izan ditzaketen laneko eta osasuneko arriskuak ebaluatzea.
34d) Langileen segurtasuna eta osasuna babestea, laneko jardueratik datozkien arriskuen aurrean.
- 35 ADMINISTRAZIO PUBLIKO GUZTIEN LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PLANAK...**
- 35a) Eragindako pertsonak, izen eta guzti, jaso behar ditu, nahitaez.
35b) Prebentziorako esleitutako kopuruak jaso behar ditu, nahitaez.
35c) Lantokian arriskuen prebentzioa ejiteko behar diren bitartekoak jaso behar ditu, nahitaez.
35d) Egokitzat jotzen duena jaso dezake.
- 36 NORBAIT ALDITXARTZEN BADA, ETA HASTEN DA KONBULTSIO MUGIMENDU BORTITZAK EGITEN. ZER EGIN BEHAR DA?**
- 36a) Ez zaizkio ahoan hatzak sartu behar.
36b) Edateko eman behar zaio.
36c) Heldu behar zaio, konbultsio-mugimendua egiten baditu.
36d) Arnasketa artifiziala egin behar zaio.
- 37 NORBAITEK ESTROPEZU EGIN ETA BIHURRITUA EGITEN DU: ZER EGIN BEHAR DA?**
- 37a) Reflex edo antzeko substantzia bat bota.
37b) Zapi beroak jarri.
37c) Masajeak egin.
37d) Bihurritako atalean izotza jarri.

38 ZER EGIN BEHAR DA NORBAIT ERRETZEN BADA?

- 38a) Hoztu erretako zona, ur askorekin bustiz.
- 38b) Azalari itsatsita geratutako arropa kendu.
- 38c) Edateko eman erre denari.
- 38d) Pomadak eman erreduran.

39 ESPAINIAKO KONSTITUZIOA: SETIO-EGOERA...

- 39a) Hondamendi natural handiei aurre egiteko ezartzen da.
- 39b) Istripu handiei aurre egiteko ezartzen da.
- 39c) Ordena publikoaren urratze larriei aurre egiteko ezartzen da.
- 39d) Estatuaren beraren aurka zuzenean egindako erasoei aurre egiteko ezartzen da.

40 ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETA: UDALEERRIAZ GAINDIKO ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEA...

- 40a) Autonomia-erkidegoen eskumena da.
- 40b) Udalen eskumena da.
- 40c) Estatu zentralaren eskumena da.
- 40d) Probintziaren eskumena da.

41 EKONOMIA ITUNA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUKO ZEIN TITULUTAN ARAUTZEN DA?

- 41a) III. tituluan.
- 41b) IV. tituluan.
- 41c) V. tituluan.
- 41d) Atariko Tituluan.

42 ITSAS SALBAMENDUAREN ESKUMENA...

- 42a) Ez da inola ere Euskal Autonomia Erkidegoarena.
- 42b) Lurralde historikoen eskumen esklusiboa da.
- 42c) Beterazte-eskumena da, Euskal Autonomia Erkidegoarena.
- 42d) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboa da

43 BIZITZAREN EREMU GUZTIETAN SEXUA DELA ETA GERTATZEN DIREN EGITATEZKO EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK...

- 43a) Alderantzizko diskriminazioa deitzen dira, Berdintasunaren Legean.
- 43b) Ekintza positiboko neurriak deitzen dira, Berdintasunaren Legean.
- 43c) Diskriminazio femeninoko neurriak deitzen dira, Berdintasunaren Legean.
- 43d) Ez zaie inolako izen berezirik ematen Berdintasunaren Legean.

- 44 PRINTZIPIO HAUETATIK, ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIOARI APLIKATU BEHARREKO PRINTZIPIO OROKOR GISA JASOTZEN HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETARA SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA?**
- 44a) Herritarren bermeak oso-osorik gordetzearen printzipioa.
44b) Berdintasun-printzipioa.
44c) Arauketa-printzipioa.
44d) Herritarrek informazioa iritsi ahal izateko printzipioa.
- 45 HAUETATIK, ZEIN EZ DA LEGE-MAILAKOA?**
- 45a) Legegintza-dekretua.
45b) Konstituzioa.
45c) Lege organikoa.
45d) Lege-dekretua.
- 46 ADMINISTRAZIO-ANTOLAMENDUA, ORGANOEN ARTEKO GATAZKAK: ORO HAR,...**
- 46a) Dagokion sailak ebatzen ditu beti eskudantzia-gatazkak.
46b) Eragindako organoen artean ebatzen dira eskudantzia-gatazkak.
46c) Administrazioarekiko auziaren jurisdikzioan ebatzen dira beti eskudantzia-gatazkak.
46d) Hierarkian goragoko organo erkideak ebatzen ditu beti eskudantzia-gatazkak.
- 47 ADIERAZI ZEIN DEN BAIEZTAPEN OKERRA:**
- 47a) Zuzenbide publikoko erakundeak ez daude ezertan ere Administracio Prozeduraren Legearen mende.
47b) Betebeharrik harreman juridiko zehatzen ondorio dira.
47c) Administracio Publikoek kontratuak egitea ez dago araututa Administracio Prozeduraren Legean.
47d) Herritarra eskubide baten titularra den egoeretan, Administrazioari zerbitzu publiko bat emateko eskuat ahal dio.
- 48 ZER EZ DA EGONGO C MOTAKO BOTIKA-KUTXAN?**
- 48a) Glukokortikoiderik.
48b) Antipireptikorik.
48c) Antianginosorik.
48d) Antihomotoxikorik.
- 49 USTEZ ITOTAKO PERTSONAK EZ BADU ERREAKZIONATZEN, ETA BIHOTZ-MASAJEARI EKITEN BADIOGU, ZENBAT ALDIZ EGINGO DUGU PRESIOA ESTERNOIAREN GAINean?**
- 49a) Hirurogei aldiz minutuko.
49b) Laurogei aldiz minutuko.
49c) Berrogeita bost aldiz minutuko.
49d) Ez da presiorik egin behar.

50 ZEIN DA D MULTZOAN SAILKATUTAKO PRODUKTU KIMIKO ERREAKTIBOA?

- 50a) Alkohola.
- 50b) Potasioa.
- 50c) Propanoa.
- 50d) Aurreko guztiak.

ORDEZKO GALDERAK

51 BI MOTATAKO ADMINISTRAZIO-ERREGISTRO DAUDE:

- 51a) Orokorrak eta partikularrak.
- 51b) Orokorrak eta osagarriak.
- 51c) Publikoak eta pribatuak.
- 51d) Handiak eta txikiak.

52 ADMINISTRAZIO EGINTZA: EAE-KO EDOZEIN UDALERRITAKO UDAL BATEK PARKEKO BANKU BAT KONPONTZEA...

- 52a) Desioko administrazio-egintza bat da.
- 52b) Borondatezko administrazio-egintza bat da.
- 52c) Administrazio-egintza material bat da.
- 52d) Berez ez da administrazio-egintza bat.

53 ZIURTAGIRI BAT EGITEA...

- 53a) Desioko administrazio-egintza bat da.
- 53b) Jakinarazpeneko administrazio-egintza bat da.
- 53c) Jarduera material hutsa da.
- 53d) Borondatezko egintza bat da.

54 HERRITAR BATEK AURKEZTUTAKO IDAZKI BATEK EZ BADU BETETZEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN LEGEAREN 70. ARTIKULUAN EZARRITAKO BETEBEHAR MATERIALEN BAT...

- 54a) Administrazioak eskatu ahal dio herritarri, egokitzat joz gero, nahi badu bost eguneko epean akatsa konpon dezan.
- 54b) Administrazioak ezin dio eskatu herritar horri akats hori konpon dezan; herritarak berak eskatu beharko du zuzenketa.
- 54c) Administrazioak eskatu behar dio herritarri hamar eguneko epean akatsa konpon dezan.
- 54d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

55 AKATS MATERIAL BAT

- 55a) Ezin dira ofizioz zuzendu.
- 55b) Ezin da ofizioz zuzendu, ezta interesdunek eskatuta ere.
- 55c) Ofizioz edo interesdunek eskatuta zuzendu liteke.
- 55d) Ez dago akats materialik, indarrean dauden legeen arabera.

LEHEN PROBAREN LEHEN ZATIAREN BUKAERA

**101.etik 155. arteko galderak lehen probaren bigarren zatiari
dagozkio**

101 EUSKO JAURLARITZAKO ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARIAK ZEHAPENA EZARRI DU ARRANTZA MERKATURATZEKO ARLOAN EGINDAKO ARAU-HAUSTE LARRI BATEN ONDORIOZ. ONDOKO ERREKURTSO HAUETAKO ZEIN AURKEZTU BEHAR DA? ZEIN DA ERREKURTSOA EBAZTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA?

- 1a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa. Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeak ebatzi behar du.
- 1b) Aukerako berraztertze-errekurtsoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak ebatzi behar du.
- 1c) Gora jotzeko errekurtsoa. Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeak ebatzi behar du.
- 1d) Gora jotzeko errekurtsoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak ebatzi behar du.

102 DEMAGUN NORBAITEK BAIMENA ESKATU DUELA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN (EAE) KANPOKO URETAKO ITSAS EREMUAN ITSASKIAK BILTZEKO. ZEIN DA BAIMENA EMAN BEHAR DION ORGANOA?

- 102a) Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura zuzendaria.
- 102b) Itsasoko Zuzendaritza Orokorreko Itsas Baliabide eta Akuikulturako zuzendari nagusia.
- 102c) Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Inguruneen Ministerioaren Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta arrantzako lurralte-ordezkaritzari.
- 102d) Baimena zer lurraldetarako eskatzen den, Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Inguruneen Ministerioaren Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralte-barrutia.

103 ZENBAT URTE EDUKI BEHAR DIRA ITSASOKO AZALEKO KIROL-ARRANTZAKO LIZENTZIA ESKURATZEKO?

- 103a) Adina ez da baldintza.
- 103b) Adina ez da baldintza, lizentzia badaukan beste norbaitekin joanez gero.
- 103c) 16 urte.
- 103d) 18 urte.

104 LEHORRETIK EGITEN DEN ITSASOKO AZALEKO KIROL-ARRANTZAN, ZENBAT AMU DAUDE BAIMENDUTA LIZENTZIA BAKOITZEKO?

- 104a) 3 amu
- 104b) 6 amu
- 104c) 9 amu
- 104d) 12 amu

105 NOIZ DA MUSKUILUAREN (*MUTILUS EDULIS*) DEBEKUALDI-GARAIA/GEBENALDIA?

- 105a) Urtarrilaren 1 – uztailaren 1
- 105b) Martxoaren 1 – urriaren 1
- 105c) Maiatzaren 1 – urriaren 1
- 105d) Ez dauka debekualdirik.

106 347/2011 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, ZER EGIN DAITEKE ITSAS ZABALEKO KIROL-ARRANTZAN HARRAPATUTAKO ARRINEKIN?

- 106a) Jatetxeei saldu.
- 106b) Beste norbaiti laga irabazia ateratzeko.
- 106c) Norberak irabazia atera.
- 106d) Hurkoari laguntzeko erakunderen bati eman.

107 ZEIN DA BISIGUAREN IZEN ZIENTIFIKOA?

- 107a) *Pagellus bogaraveo*
- 107b) *Pagellus erythrinus*
- 107c) *Pagrus aurig*
- 107d) *Pagrus caerulecostictus*

108 ZENBAT IRAUTEN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN (EAE) ANGULAK LEHORRETIK NAHIZ ONTZITIK HARRAPATZEKO EMATEN DEN LIZENTZIAK?

- 108a) Mugagabea da.
- 108b) 5 urte.
- 108c) Urtebete.
- 108d) Arrantza-denboraldia.

109 EUROPAKO ANGILA UGARITZEKO 41/2003 EE ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DIRA, BESTEAK BESTE, HELBURU HORI LORTZEKO?

- 109a) Kirol-arrantza murriztu, harrapariak kontrolatu eta ekoizpen hidroelektrikoko turbinak tarteka konektatu.
- 109b) Arrantza komertziala gutxitu, ale berriak sartu eta akuikulturako neurriak hartu.
- 109c) Ibaiak joan-otorrieta rako egokiak izateko eta ibaietako habitatak hobetzeko neurri estrukturalak, horren bidez arrantza komertziala ugaritzeko asmoz.
- 109d) Kirol-arrantza bultzatu, harrapariak kontrolatu eta ekoizpen hidroelektrikoko turbinak tarteka deskonektatu.

110 GIZAKIOK JATEKO, ARAZTEGIAREN BATEAN TRATATU ETA GERO EDO BESTE NONBAIT INSTALATU ETA GERO, BAKARRIK KOMERZIALIZATU DAITEZKEEN KUSKU BIKO MOLUSKU BIZIAK, ZEIN EKOIZPEN EREMUTAN BIL DAITEZKE BEHARREZKO OSASUN-ARAUAK BETE DITZATEN 854/2004 EE ERREGELAMENDUAREN ARABERA,?

- 110a) A eremuan
- 110b) B eremuan
- 110c) C eremuan
- 110d) D eremuan

- 111 EAEKO ITSASBAZTERREAN ARRANTZA-TRESNA XUMEEKIN EGITEN DEN ARRANTZA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZEIN NEURRITAKOA IZAN BEHAR DU, GEHIENEZ, TRETZATXOAK (LUZERAZ ETA AMU KOPURUAZ)?**
- 111a) 1000 metro eta 1000 amu
111b) 2000 metro eta 1000 amu
111c) 3000 metro eta 1000 amu
111d) 1000 metro eta 3000 amu
- 112 EAEKO BARRUKO ARRANTZA PLANAK BIZKAIRAKO EZARTZEN DUENAREN ARABERA, EA-TIK HASI ETA SATURRARAN-GO PUNTA BITARTEKO ITSASERTZEAN, ZENBATERAINO HONDORATU DAITEZKE GEHIENEZ, ITSASBEHERAKO LERRO ESKORATUTIK, BETA EDO MALLABAKARRA TIPOKO SAREAK ETA TRESMAILA?**
- 112a) 40 braza (73,2 m.) eta 30 braza (55 m.)
112b) 40 braza (73,2 m.) eta 40 braza (73,2 m.)
112c) 30 braza (55 m.) eta 40 braza (73,2 m.)
112d) 50 braza (91,5 m.) eta 40 braza (73,2 m.)
- 113 EAE-KO BARNE-URETAN, ZER NEURRI IZAN BEHAR DU GUTXIENEZ LUPIA HARRAPATZEKO MAILASAREAREN MAILAK?**
- 113a) 50 mm.
113b) 60 mm.
113c) 80 mm.
113d) 100 mm.
- 114 DEMAGUN KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN, BATETIK, ARRASTEKO ONTZI BAT LANEAN ARI DELA, ETA, BESTETIK, TRESNA FINKODUN ONTZI BAT BERE TRESNA EDO APARAILUA BOTATZEN ARI DELA. ZENBATEKO TARTEA GORDE BEHAR DU ARRASTREKO ONTZIAK, GUTXIENEZ, ONTZI BATEN ETA BESTEAREN ITSASBIDEAREN ARTEAN?**
- 114a) Mila laurdena
114b) Mila erdia
114c) Mila bat
114d) Mila eta erdi
- 115 ZENBATEKOIA IZAN BEHAR DU, GUTXIENEZ, INGURA SARE BATEN MAILA, KARNATA EDO BEITA BIZIA HARRAPATZEN IBILTZEKO?**
- 115a) 8 mm.
115b) 10 mm.
115c) 12 mm.
115d) 14 mm.

116 KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN, ARRASTEAN ARRANTZA EGITEKO, ZENBATEKO HONDOA GAINDITU BEHAR DA?

- 116a) 50 m.
- 116b) 100 m.
- 116c) 150 m.
- 116d) 200 m.

117 ZEIN ESPEZIE EZIN DA ARRASTEAN ARRANTZATU KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN?

- 117a) Zapoa
- 117b) Txibia
- 117c) Barbarina
- 117d) Sardina

118 ZEIN DA GEHIENEZKO ALTURA ZAPO-SAREA ERABILTZEKO KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN?

- 118a) 2 m.
- 118b) 2,5 m.
- 118c) 3 m.
- 118d) 3,5 m.

119 ZEIN NEURRITAKOA DA KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN HARRAPA DAITEKEEN MIHI-ARRAINA TXIKIENA?

- 119a) 24 cm.
- 119b) 22 cm.
- 119c) 20 cm.
- 119d) 18 cm.

120 ZER ESPEZIE ADIERAZTEN DU LEPIDORHOMBUS spp IZEN ZIENTIFIKOAK?

- 120a) Oilarra.
- 120b) Eglefino
- 120c) Txitxarroa.
- 120d) Zapoa.

121 GUTXIENEZ 24 METROKO ESLORA ETA 45 METRO BAINO GUTXIAGOKO ESLORA DITUZTEN ARRANTZA-ONTZI KOMUNITARIOEI DAGOKIONEZ, NOIZTIK HASITA IZANGO DUTE DERRIGORREZKO IDENTIFIKAZIO AUTOMATIKOKO SISTEMA ERAMATEA?

- 121a) 2012ko urtarrilaren 1etik.
- 121b) 2012ko maiatzaren 31tik.
- 121c) 2013ko urtarrilaren 1etik.
- 121d) 2013ko maiatzaren 31tik.

122 NOLA NEURTZEN DA SAREAREN MAILA?

- 122a) Ausaz aukeratutako hainbat maila neurtuta ateratzen denaren diagonal handiena hartuta.
- 122b) Kalibragailuaren baraien barruko ertzen arteko distantziaren berdina izango da.
- 122c) Batez besteko balioa aterata kalkulatzen da, kalibragailuak adierazita bezala, hautatutako 20 mailak kontuan hartuta.
- 122d) Batez besteko balioa aterata kalkulatzen da, kalibragailuak adierazita bezala, kapitainak hautatutako 40 mailak kontuan hartuta.

123 DEMAGUN ARRANTZA-ONTZI BAT ARRANTZARAKO MUGATUTAKO EREMU BATEAN DABILELA, EREMU HORRETAN ARRANTZAN ARITZEKO BAIMENIK GABE. HALABEHARRIK EDO BALDINTZA TXARRIK EZ BADA BEHINTZAT, ZENBATEKO ABIADAN PASA BEHAR DU, GUTXIEZEZ?

- 123a) 3 korapilo.
- 123b) 5 korapilo.
- 123c) 6 korapilo.
- 123d) Ezin du eremu horretatik pasa.

124 KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN, ZER IZAN BEHAR DUTE IDATZITA ARRANTZA TRESNA FINKOEN BALIZA-BUIAK AGERIAN GERATZEN DEN ALDEAN?

- 124a) Arrantza-ontziaren matrikula eta folioa, eta zer arrantza-tresna mota den.
- 124b) Arrantza-ontziaren izena eta folioa, eta erabiltzen duen arrantza-tresnaren izena.
- 124c) Arrantza-ontziaren matrikula eta izena, eta zer arrantza-tresna mota den.
- 124d) Arrantza-ontziaren izena eta arrantza-tresnaren mota eta izena.

125 EUROPAR BATASUNAREN AGINDUPEKO URETAN, OTARRA ERABILIZ BUIARIK (CANCER PAGURUS) HARRAPATZEN BADA:

- 125a) Gehienez ere, harrapatutako buia guztien pisuaren % 1a hagin soltetan lehorrera daiteke.,
- 125b) Gehienez ere, 75 kg hagin solte lehorrera daiteke arrantza-denboraldi bakoitzean.
- 125c) Gehienez ere, 100 kg hagin solte lehorrera daiteke arrantza-denboraldi bakoitzean.
- 125d) Ezin da hagin solterik lehorreratu, beti buia osoak lehorreratu behar dira.

126 GUTXIEZEZ, ZEIN NEURRITAKO ENGRAULIS ENCRASICOLUS JASO DAITEKE KANTAURI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN?

- 126a) 12 cm.
- 126b) 11 cm.
- 126c) 9 cm.
- 126d) 8 cm.

127 NOLA NEURTZEN DA MARLINEK EDUKI BEHARREKO TAMAINA MINIMOA?

- 127a) Luzera osoan, hasi barailatik eta isats-hegats bukaera arte.
- 127b) Goiko barailaren muturretik, isats-hegatsaren urkila arte.
- 127c) Beheko barailaren muturretik, isats-hegatsaren urkila arte.
- 127d) Goiko barailaren muturretik, isats-hegats laburrena arte.

128 HONAKO ESPEZIEETATIK BAT EZIN DA HARRAPATU INGURAKETA SAREAK ERABILIZ KANTAU RI ETA IPAR-EKIALDEKO ARRANTZA-LEKU NAZIONALEAN. ZEIN?

- 128a) Txitxarroa.
- 128b) Berdela.
- 128c) Muxarra.
- 128d) Bakalada.

129 DEMAGUN ARRANTZA-TOKI BATEK KUOTA DAUKALA EZARRITA. ESTATU KIDE BATEKO ARRANTZA-ONTZIEK KUOTA HORREN PORTZENTAJE BATERAINO HARRAPATZEN DUTENEAN, ESTATUAK BATZORDEARI JAKINARAZI BEHAR DIO. ZENBATEKO DA PORTZENTAJE HORI?

- 129a) %70
- 129b) %80
- 129c) %90
- 129d) %100

130 ARRANTZAKO PRODUKTUEN AURRENEKO SALMENTEA ARAUTZEN DUEN 1822/2009 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, HARRAPATUTAKOA SALTZEN BADA ETA GERO LEHORRERATU EDO DESKARGATU DEN LEKUA EZ DEN BESTE NORABAII ERAMAN BEHAR BALDIN BADA, AGIRIEN BIDEZ FROGATU BEHAR DA TRANSAKZIOA Hori. ZER JARRI BEHAR DA, GUTXIENEZ, AGIRI HORIETAN?

- 130a) Salmenta-oharraren identifikazio-zenbakia edo salerosketa-kontratuaren erreferentzia, kontratu bidezko salmenta izan bada.
- 130b) Prezioa.
- 130c) Arrain hori arrantzatu zituen ontziaren identifikazioa.
- 130d) Arraina non lehorreratu zen.

131 ARRANTZA POLITIKA ERKIDEAREN ARAUAK BETETZEN OTE DIREN KONTROLATZEKO ATERATAKO 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZEINEK DAUKA ARDURA ARRANTZA-PRODUKTUEN GARRAIOKO AGIRIAK ZEHATZAK IZATEKO?

- 131a) Armadoreak.
- 131b) Armadoreak edota patroiak.
- 131c) Garaiolariak.
- 131d) Patroiak.

- 132 ARRANTZA POLITIKA ERKIDEAREN ARAUAK BETETZEN OTE DIREN KONTROLATZEKO ATERATAKO 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ARRASTOARI DAGOKIONEZ, 58. ARTIKULUAK ZENBAIT BALDINTZA EZARTZEN DIZKIE ARRANTZAKO PRODUKTUEI. HALERE, ESTATU KIDEEK BADAUKATE AUKERA BALDINTZA HORIEN BETE BEHARRA SALBUESTEKO. ZEIN KASUTAN?**
- 132a) Produktuok zuzenean, ontzian bertan, kontsumitzaileari saltzen zaizkionean, baina egunean 30 kilo gainditu gabe.
132b) Baimendutako erosleei saltzen zaizkienean, baina egunean 30 kilo gainditu gabe.
132c) Produktuok zuzenean, ontzian bertan, kontsumitzaileari saltzen zaizkionean, egunean 30 kilo gainditu gabe, eta ondoren salmenta-oharra eginda.
132d) Produktuotatik gutxi batzuk zuzenean, ontzian bertan, kontsumitzaileari saltzen zaizkionean, baina egunean 50 euro gainditu gabe.
- 133 HONAKO ZEIN NEURRI DA ARRANTZA-KONTROLEKO AGENTZIA KOMUNITARIOAREN ESKUMENEKOA?**
- 133a) Arrantza politika erkidearen kontrolari buruzko 1224/2009 erregelamenduan araututako web-orri ofizialetik denentzat irekita dagoen partea kudeatzea.
133b) Arrantza politika erkidearen kontrolari buruzko 1224/2009 erregelamenduan jasotzen diren larrialdiko neurriak hartzea.
133c) Ikuskatzeko arau bateratuen berri emateko eskuliburuak banatzea.
133d) Arrantza politika erkidearen kontrolari buruzko 1224/2009 erregelamenduaren IX Tituluan (Kontrol-programak) zenbait arrantza-tokitarako aipatzen diren kontrol eta ikuskaritza programa zehatzak onartzea.
- 134 DEMAGUN XXX, S.A. ENPRESAK BADUELA BAIMENA EAEN AURRENEKO SALMENTAN ARITZEKO ETA URTEAN 150.000 EUROKO BOLUMENA FAKTURATZEN DUELA ARRANTZAKO PRODUKTUETAN. 1822/2009 ERREGELAMENDUAREN (AURRENEKO SALMENTAK) ARABERA, ENPRESA HORREK:**
- 134a) Salmenta-oharrak bete beharko ditu, ahal badu, elektronikoki.
134b) Salmenta-oharrak elektronikoki beteko ditu.
134c) Salmenta-oharrak bete beharko ditu, ahal badu, elektronikoki, eta organo eskudunari helarazi beharko dizkio aurreneko salmenta egin eta hurrengo 48 orduen barruan.
134d) Organo eskudunari helarazi beharko dizkio salmenta-oharrak, aurreneko salmenta egin eta hurrengo 24 orduen barruan, edozein formatutan.
- 135 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, BAIMENDUTA AL DAGO ARRANTZA-ONTZI EZBERDINETAKO HARRAPAKINAK LOTE BAKAR BATEAN BILTZEA?**
- 135a) Ez. Ez daiteke.
135b) Bai. Arrantza-ontziak ekoizle-elkarte berekoak badira eta harrapatutakoa ez baldin bada espezieko 30 kg baino gehiago.
135c) Bai. Arrantza-ontziak ekoizle-elkarte berekoak badira eta arrainkiak arrantza-modalitate berdinarekin arrantzatu badira denak.
135d) Bai. Harrapatutako guztia ordenazio-eremu beretik baldin badator eta ez baldin bada espezieko 30 kg baino gehiago.

- 136 ARRANTZAKO, AKUIKULTURAKO ETA ITSASKI-BILKETAKO PRODUKTU BIZI, FRESKO, HOZTU ETA EGOSIAK IDENTIFIKATZEN DITU 121/2004 ERREGE DEKRETUAK. DEKRETU HORREN ARABERA, NOLA EZARRI BEHAR DA ESPEZIEEN MERKATARITZAKO IZENA ETA IZEN ZIENTIFIKOA?**
- 136a) Eusko Jauritzako Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren eba zpen bidez.
136b) Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Ministerioaren agindu bidez (gaur egun beste izen bat du: Nekazaritza, Elikagai eta Ingurumen Ministerioa).
136c) Itsas Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren eba zpen bidez (gaur egun beste izen bat du: Arrantzako Idazkaritza Nagusia).
136d) Europako Batzordearen erregelamendu bidez.
- 137 ARRANTZAKO, AKUIKULTURAKO ETA ITSASKI-BILKETAKO PRODUKTU BIZI, FRESKO, HOZTU ETA EGOSIAK IDENTIFIKATZEN DITU 121/2004 ERREGE DEKRETUAK. DEKRETU HORREN ARABERA, "ATLANTIKO IPAR- EKIALDE" ARRANTZALEKUA FAO-KO ZER EREMU DA?**
- 137a) FAO 21 eremu
137b) FAO 27 eremu
137c) FAO 37 eremu
137d) FAO 51 eremu
- 138 1822/2009 ERREGE DEKRETUAK ARAUTZEN DU ARRANTZAKO PRODUKTUEN AURRENEKO SALMENTA. DEKRETU HORREN ARABERA, AURRENEKO SALMENTA ZER DA?**
- 138a) Spainiako estatuaren barruan lehenengoz egiten dena, produktuaren prezioa agiri bidez egiaztatuta.
138b) Europar Batasunean lehenengoz egiten dena, produktuaren prezioa agiri bidez egiaztatuta.
138c) Spainiako estatuaren barruan lehenengoz egiten dena; edo hortik kanpo beste herrialderen batean lehenengoz egiten dena, baina, halakoetan, agiri bidez egiaztatuz produktua importatua dela.
138d) Europar Batasunean lehenengoz egiten dena; edo hortik kanpo beste herrialderen batean lehenengoz egiten dena, baina, halakoetan, agiri bidez egiaztatuz produktua importatua dela.
- 139 IKUS DEZAGUN ITSASOKO PRODUKTUEN MERKATURATZEA NOLA DAGOEN ARAUTURIK ESTATUKO ITSAS ARRANTZARI BURUZKO 3/2001 LEGEAN. AURRENEKO SALMENTAREN ETA AZKEN KONTSUMOAREN ARTEAN, HAINBAT OPERAZIO DAGO:**
- 139a) Edukitzea ez da operazio horietako bat.
139b) Edukitzea bada operazio horietako bat, nahiz eta berariaz aipamenik egon ez.
139c) Jatetxeetan saltzea ere bada operazio horietako bat.
139d) Jatetxeetan saltzea ez da operazio horietako bat.

- 140 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA (ARRANTZA POLITIKA ERKIDEAREN KONTROLA), GARRAIO-AGIRIA BETE ETA AURKEZTU GABE ERE IBILI DAITEKE APARTEKO KASU BATZUETAN. NOIZ?**
- 140a) Batzordeak baimentzen badu eta arrantza-produktuak portu eremuan garraiatzen badira.
140b) Estatu kideek baimentzen badute (Batzordeak txostena egin ondoren), eta arrantza-produktuak portu eremuan garraiatzen badira.
140c) Estatu kideek baimentzen badute eta arrantza-produktuak, gehienez ere, lehorreratu dituzten lekutik 20 kilometrora garraiatzen badira.
140d) Estatu kideek baimentzen badute (Batzordeak txostena egin ondoren) eta arrantza-produktuak, gehienez ere, lehorreratu dituzten lekutik 20 kilometrora garraiatzen badira.
- 141 ITSASOKO ARRANTZARI BURUZKO 6/1998 EUSKAL LEGEARREN ARABERA, KIROL-ARRANTZAN, ZER-NOLAKO ARAUHAUSTEA DA DEBEKATUTAKO ESPEZIEAK HARRAPATZEA?**
- 141a) Arina.
141b) Larria.
141c) Oso larria.
141d) Legearren arabera, halako espezieak “edukitzea” bai da arau-hauste larria, baina “harrapatzea” ez.
- 142 ITSASKO ARRANTZARI BURUZKO EUSKAL LEGEARREN ARABERA (6/1998), ZENBAT DENBORA BEHAR DA ARAU-HAUSTE LARRIAK PRESKRIBATZEKO?**
- 142a) Urtebete, arau-haustea egin zen egunetik zenbatzen hasita.
142b) Urtebete, zehapen-espedientea hasteko akordioa hartzen denetik hasita.
142c) Bi urte, arau-haustea egin zen egunetik zenbatzen hasita.
142d) Bi urte, arau-haustea egin eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- 143 EB 404/2011 EXEKUZIO-ERREGELAMENDUAREN ARABERA (APE KONTROLATZEKO 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN GARAPENA), ARAU-HAUSTEREN BAT ANTZEMAN EZEAN EDO AGENTEEK INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR EZEAN, ZENBAT IRAUNGO DUTE ONTZIAK ITSASOAN BERTAN IKUSKATZEKO LANEK?**
- 143a) Gehienez ere bi ordu; edo sareak jaso arte eta sareak eta harrapakina ikuskatu arte. Bi aukera horien artetik, denbora gehien eskatzen duena aplikatu behar da.
143b) Gehienez ere 4 ordu; edo sareak jaso arte eta sareak eta harrapakina ikuskatu arte. Bi aukera horien artetik, denbora gehien eskatzen duena aplikatuko da.
143c) Ez dago gehienezko mugarik. Sareak jaso arte eta sareak eta harrapakina ikuskatu arte iraungo du.
143d) Muga bakarra dago: ontzian ahalik eta eragozpenik txikienak eragitea.

- 144 ARAU-HAUSTE LARRIETARAKO PUNTU-SISTEMAZ, 1224/2009 EE ERREGELAMENDUAREN ARABERA (APE-REN KONTROLA), ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**
- 144a) Puntutako sistema arrantza-lizentziaren titularrei soilik aplikatuko zaie.
144b) Arrantza-lizentziaren titularrari hainbat puntu ematen zaizkio, eta, gero, arrantza-politika erkidearen arauak larriku urratu ahala, kendu egiten zaizkio.
144c) Arrantza-politika erkidearen arauak larriku urratzen dituen bakoitzean, arrantza-lizentziaren titularrari puntu-kopuru egoki bat ematen zao.
144d) Hurrengo bi urteetan ez baldin badu beste arau-hauste larrik egiten, lizentziaren titularrak puntuak atzera errekuperatu egingo ditu.
- 145 1224/2009 EE ERREGELAMENDUAREN ARABERA (APE-REN KONTROLA), NOIZ BIDALI BEHAR ZAIO IKUSKAPEN-TXOSTENAREN KOPIA BAT OPERADOREARI?**
- 145a) Ikuskapena egiten denean bertan, beti.
145b) Lehenbailehen, eta, beranduenera ere, ikuskapena amaitu eta hilabetera.
145c) Lehenbailehen, eta, beranduenera ere, ikuskapena amaitu eta hamar egun baliodunetan
145d) Lehenbailehen, eta, beranduenera ere, ikuskapena amaitu eta hamabost lanegunetan.
- 146 404/2011 EB EXEKUZIO-ERREGELAMENDUA, ARRANTZA POLITIKA ERKIDEA KONTROLATZEKO ERREGELAMENDUAREN GARAPENA DA. DEMAGUN IBILGAILU EDO EDUKIONTZI BAT ZIGILATU EGIN DELA, INORK EZ DEZAN KARGA UKITU. NON ANOTATU BEHAR DIRA ZIGILU HORREN SERIE-ZENBAKIAK?**
- 146a) Garraio-agirian.
146b) Badaezpada hartu beharreko neurrien akta bete baldin bada, ez dago zenbaki horiek garraio-agirian anotatu beharrik.
146c) Exekuzio-erregelamendu horretako XXVII. eranskinean arauturik dagoen ikuskapen-txostenean ageri badira, ez dago zenbaki horiek garraio-agirian anotatu beharrik.
146d) Exekuzio-erregelamendu horretako XXVII. eranskinean arauturik dagoen ikuskapen-txostenak oharra jartzeko dakarren atalean.
- 147 404/2011 EB EXEKUZIO-ERREGELAMENDUAREN ARABERA (KONTROL-ERREGELAMENDUAREN GARAPENA), SARDINZARRA, BERDELA EDO TXITXARROA NOLA LEHORRERATZEN DEN IKUSKATU BEHAR DENEAN, ESTATU KIDEETAKO AGINTARI ESKUDUNEK GUTXIENEKO KOPURU BATZUK IKUSKATU DIRELA BERMATU BEHARRA DAUKATE. ZEIN DIRA KOPURU HORIEK?**
- 147a) Gutxienez espezie horietatik lehorreratutako kopuruen % 50 eta gutxienez espezi horien lehorreratzeen % 25.
147b) Gutxienez espezie horietatik lehorreratutako kopuruen % 50 eta gutxienez espezi horien lehorreratzeen % 15.
147c) Gutxienez espezie horietatik lehorreratutako kopuruen % 25 eta gutxienez espezi horien lehorreratzeen % 15.
147d) Gutxienez espezie horietatik lehorreratutako kopuren % 15 eta gutxienez espezi horien lehorreratzeen % 10.

- 148 1224/2009 EE ERREGELAMENDUAREN ARABERA (APE-REN KONTROLA), ESTATU KIDE GUZTIEK WEB ORRI BAT SORTU BEHARRA DAUKATE, ETA, BERTAN, EDONOR SARTU DAITEKEEN ZATIAN, ZUZENEKO ESTEKA BAT JARRI BEHAR DA. NORAKO?**
- 148a) Estatuetako kontrol-programetarako, 46. artikuluan aipaturik dagoen moduan.
- 148b) Arrantza egiteko aukerei buruzko datu guztiak dituen datu-base elektronikorako, 33. artikuluan zehazturik dagoen moduan.
- 148c) Aldi baterako itxita dauden arrantza-tokien koordenatuak zehazten dituen denbora errealeko mapa baterako (54. artikuluan daude zehazturik).
- 148d) Arrantzan egiteko lizenziak eta baimenak eteteko eta kentzeko kasu guztiei buruzko baldintzetarako eta informaziorako.
- 149 “ARRANTZA-PRODUKTUAK LEGEAK AGINTZEN DITUEN AGIRIAK GABE GARRAIATZEA” ARAU-HAUSTE LARRIA DA. NON DAGO HORRELA TIPIFIKATURIK?**
- 149a) Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean, azaroaren 26koan.
- 149b) Arrantza-produktuen aurreneko salmenta arautzen duen azaroaren 22ko 1822/2009 Errege Dekretuan.
- 149c) Itsas arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legean (Euskadiko Arrantza Legean).
- 149d) Estatuko itsas arrantzari buruzko martxoaren 26ko 3/2001 Legean.
- 150 404/2011 EB EXEKUZIO-ERREGELAMENDUA, APE-REN KONTROL-ERREGELAMENDUAREN GARAPENA. IKUSKAPEN-TXOSTENAK BETETZEARI BURUZ, ETA ESTATUKO LEGEDIARI EZER KENDU GABE, OPERADOREAK IKUSKATZE-TXOSTENA SINATZEN BADU, ZER ESAN NAHI DU BERE SINADURAK?**
- 150a) Hasi dela zenbatzen arau-haustea preskribatzeko epea.
- 150b) Onartu egiten duela txostenean jartzen duena.
- 150c) Esan nahi du txostenetan bera aitortzen duela.
- 150d) Exekuzio-erregelamenduak ez du ezer aipatzen honi buruz.

ORDEZKO GALDERAK

- 151 1224/2009 EE ERREGELAMENDUAN (APE-REN KONTROLA), BADA TITULU BAT ESTATU KIDEEK ARRANTZA-POLITIKA ERKIDEAREN HELBURUAK BETEKO DITUZTELA BERMATZEKO NEURRIEI BURUZ. TITULU HORRETAN, “URGENTZIAZKO NEURRIAK” HARTZEKO AUKERA ERE BADATOR. NORK HARTUKO DITU “URGENTZIAZKO NEURRI” HORIEK, ETA GEHIENEZ ERE ZENBAT IRAUNGO DUTE?**
- 151a) Estatu kideak. Gehienez ere sei hilabete iraungo dute, eta beste sei arte luza daitezke.
- 151b) Estatu kideak. Antzemandako okerrak zuzendu arte iraungo dute.
- 151c) Batzordeak. Gehienez ere sei hilabete iraungo dute, eta beste sei arte luza daitezke.
- 151d) Batzordeak. Antzemandako okerrak zuzendu arte iraungo dute.

152 EAE-KO BARRUKO URETAN, ARRANTZA-TRESNA ETA APARAILU FINKOEN BALIZETATIK IPARRALDERAGO EDO MENDEBALDERAGO UTZITAKO AZKEN BALIZEN BURUETAN, ZER JARRI BEHAR DA EGUNERAKO ETA GAUERAKO?

- 152a) Bi bandera zuri, bertikalean bata bestearen gainean jarrita, eta bi argi gorri.
- 152b) Bi bandera beltz, bertikalean bata bestearen gainean jarrita, eta bi argi zuri.
- 152c) Bi bandera gorri, bertikalean bata bestearen gainean jarrita, eta bi argi gorri.
- 152d) Bi bandera gorri, bertikalean bata bestearen gainean jarrita, eta bi argi zuri.

153 ARRANTZA KONTSERBATZEKO 850/98 EE ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZEIN DIRA 3. ESKUALDEKO ITSASO-URAK?

- 153a) CIEM VII eta CIEM VIII azpi-eskualdeetako ur guztiak.
- 153b) CIEM VIII eta CIEM IX azpi-eskualdeetako ur guztiak.
- 153c) CIEM IX azpi-eskualdeetako ur guztiak.
- 153d) Ipar latitudeko 48º-tik iparraldera dauden ur guztiak.

154 EB-N, HEGALABURRAK (*THUNNUS THYNNUS*), MERKATURATZE-KATE OSOAN ZEHAR, AGIRI BAT DARAMA BETI BERAREKIN. ZEIN DA AGIRI Hori?

- 154a) Harrapatze-agiria.
- 154b) Salmenta-oharra.
- 154c) Garraio-agiria.
- 154d) Kontrol-adierazpena.

155 APE-REN KONTROLARI BURUZKO 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, BATZUETAN, ARRANTZAKO PRODUKTUAK ONTZIAN BERTAN PISATU DAITEZKE. NOIZ?

- 155a) Bi baldintza hauek betetzen direnean: dena delako estatu kideak baimena ematea, eta laginketa-plan bat ere edukitza, Europar Batzordeak onarturik.
- 155b) Bi baldintza hauek betetzen direnean: Europar Batzordeak baimena ematea, eta laginketa-plan bat ere edukitza, estatu kideak onarturik.
- 155c) Aurreneko salmenta baino lehen, lehorreratzeko estatua ez den beste estatu kide batera garaiatu behar badira.
- 155d) Bi baldintza hauek betetzean: aurreneko salmenta baino lehen, lehorreratzeko estatua ez den beste estatu kide batera garaiatu behar izatea; eta laginketa-plan bat ere edukitza, Arrantza Kontrolatzeko Europar Erkidegoko Agentziak onartuta.

**LEHEN PROBAREN BIGARREN ZATIKO TEST GALDEREN
BUKAERA**

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA

**ITSAS NABIGAZIOA, ARRANTZA ETA GARRAIOKO GOI-
MAILAKO TEKNIKARIA, ETA
ITSASONTZIKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN IKUSKAPEN ETA
KONROLEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

1. PROBA/ 2. ZATIA

ERANTZUN LABURREKO GALDERAK

- Ez ezazu inongo identifikazio daturik jarri galde sorta honetan
- Azterketa bukatutakoan, sar ezazu galde sorta laranja kolorezko gutunazal handian

1. ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITU URPEKO KIROL-ARRANTZARAKO BESTE AUTONOMIA-ERKIDEIGO BATZUETAN EMANDAKO BAIMENAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARRUKO URETAN BALIOA IZATEKO?

2.- IZENDA ITZAZU ITSASKI-BILKETAKO 8 ESPEZIE (IZEN KOMERTZIALA) EAE-KO BARRUKO URETAKO KIROL-ARRANTZAKO BAIMENEN TITULARREK EZIN DITUZTENAK HARRAPATU DEBEKUAGATIK.

- | | |
|----|----|
| 1) | 2) |
| 3) | 4) |
| 5) | 6) |
| 7) | 8) |

3.- ARRANTZA-SAREEN MAILAREN TAMAINARI ETA SARE-HARIAREN LODIERARI BURUZKO (CE) 517/2008 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZEIN IRIZPIDEREN ARABERA HAUTATU BEHAR DITUGU NEURTU BEHAR DITUGUN ARRANTZA-TRESNA PASIBO BATEN MAILAK?

4.- ZENBAIT EGOERATAN DEBEKATURIK DAGO ARRANTZA-TRESNA XUMEAK BOTA, LAGA EDO ASKATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARRUKO URETAN. AIPA ITZAZU 5 EGOERA:

- 1)
- 2)
- 3)
- 4)
- 5)

5. ZEIN DA "ARRANTZA JARDUERA" KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA ARRANTZA-POLITIKA BATERATUAREN KONTROLARI BURUZKO (CE) 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA?

6. DEFINI ITZAZU TRESMAILA BAT ETA HAREN EZAGARRIAK ARRANTZA-TRESNA XUMEEI BURUZKO 212/2000 DEKRETUAREN ARABERA.

7.- AZAROAREN 27KO 1822/2009 ERREGE DEKRETUAK ARRANTZA-PRODUKTUEN AURRENEKO SALMENTA ARAUTZEN DU. ZEIN EZAGARRI IZAN BEHAR DITU AURRENEKO SALMENTA HORI EGITEN DEN LEKUAK? (4. ARTIKULUA).

8.- ARRANTZA-POLITIKA BATERATUAREN KONTROLARI BURUZKO (CE) 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN ARABERA, GARRAIO-AGIRIAK ZER EDUKI IZAN BEHAR DU?

- A)
- B)
- C)
- D)
- E)
- F)

9.- ARAU-HAUSTEETARAKO PROZEDURAREN ARABERA –ARRANTZA-POLITIKA BATERATUAREN KONTROLARI BURUZKO (CE) 1224/2009 ERREGELAMENDUAREN 82. ARTIKULUAN DAGO ARAUTUTA-, IKUSKAPEN BAT EGIN BITARTEAN BILTZEN DEN INFORMAZIOAK EDO BESTE EDOZEIN INFORMAZIOK AGENTEARI PENTSARAZTEN BADIO URRATU EGIN DIRELA ARRANTZA-POLITIKAREN ARAUAK, ZER EGIN BEHARKO DU AGENTE IKUSKATZAILEAK?

10.- ARRANTZAKO, AKUIKULTURAKO ETA ITSASKI-BILKETAKO PRODUKTU BIZI, FRESKO, IZOZTU EDO EGOSIEN IDENTIFIKAZIOARI BURUZKO 121/2004 ERREGE DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, AZKEN KONTSUMITZAILEARENTZAT HANDIZKA SALGAI JARTZEN DIREN PRODUKTUEN ETIKETAN EMAN BEHARREKO INFORMAZIOAK GUTXIENEKO ZEHAZTAPEN BATZUK JASO BEHAR DITU. ZEINTZUK?

ORDEZKO GALDERAK

11. AMUA OINARRIZKO ELEMENTUTZAT DUTEN APARAILUEN ARTEAN, ZEINTZUK AIPATZEN DITU 212/DEKRETUAK, ITSAZBAZTERREAN ARRANTZA TRESNA XUMEEKIN EGITEN DEN ARRANTZA ARAUTZEN DUENAK?

12. ZEINTZUK DIRA INGURA-SAREEN GEHIENEZKO NEURRIAK, 204/1994 DEKRETURAEN ARABERA (DEKRETU HONEK EUSKAL HERRIKO KOSTALDEAN ZEINBAIT ARRANTZA-TRESNAREN ERABILERA ARAUTZEN DU) ?

CUERPO DE AYUDANTES TÉCNICOS

**OPCIÓN: T. S. NAVEGACIÓN, PESCA Y
TRANSPORTE MARÍTIMO**
**OPCIÓN: T. S. SUPERVISIÓN Y CONTROL DE
MÁQUINAS E INSTALACIONES DEL BUQUE**

1^a PRUEBA/1^a y 2^a PARTE

MODELO A

Las preguntas de la 1 hasta la 55 corresponden a la primera parte de la primera prueba

1 DE ACUERDO CON LA CONSTITUCIÓN DE 1978

- 1a) La soberanía nacional reside en las Cortes.
- 1b) La soberanía nacional reside en la monarquía parlamentaria.
- 1c) La soberanía nacional reside en el pueblo español.
- 1d) La soberanía nacional reside en las nacionalidades que componen el Estado.

2 ORGANIZACIÓN TERRITORIAL DEL ESTADO: SEÑALE LA RESPUESTA CORRECTA...

- 2a) Los municipios menores de cinco mil habitantes carecen de personalidad jurídica propia.
- 2b) Los ayuntamientos tienen capacidad para aprobar reglamentos en algunas materias.
- 2c) El estado carece hoy por hoy de competencia exclusiva para regular las bases del régimen jurídico de las Administraciones públicas.
- 2d) Las Comunidades Autónomas carecen de competencia para aprobar la legislación de desarrollo de la legislación básica.

3 ¿QUÉ COMUNIDAD AUTÓNOMA NO ACCEDIÓ A LA AUTONOMÍA POR LA VÍA DEL ARTÍCULO 151 DE LA CONSTITUCIÓN?

- 3a) Cataluña.
- 3b) País Vasco.
- 3c) Navarra.
- 3d) Andalucía.

4 SEÑALE LA RESPUESTA INCORRECTA:

- 4a) El Estatuto de Autonomía del País Vasco es conocido como Estatuto de Gernika.
- 4b) El lehendakari es elegido directamente por el electorado en elecciones cada cuatro años.
- 4c) Las leyes del Parlamento vasco son promulgadas por el Lehendakari.
- 4d) El estatuto de los funcionarios del País Vasco es competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco pero respetando la competencia del Estado en materia de bases del régimen estatutario del funcionariado.

5 ES COMPETENCIA EXCLUSIVA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO...

- 5a) La competencia sobre medio ambiente.
- 5b) Las demarcaciones territoriales municipales, respetando las competencias de los Territorios Históricos.
- 5c) La legislación laboral.
- 5d) La ordenación del sector pesquero.

6 LA LEY PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO...

- 6a) Data de 2004.
- 6b) Data de 2006.
- 6c) Data de 2003.
- 6d) Ninguna de las anteriores es correcta.

7 LAS DIRECTRICES PARA LA REALIZACIÓN DE LA EVALUACIÓN PREVIA DE IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO Y LA INCORPORACIÓN DE MEDIDAS PARA ELIMINAR DESIGUALDADES Y PROMOVER LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES...

- 7a) Fueron aprobadas por Emakunde.
- 7b) Fueron aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno.
- 7c) Fueron aprobadas por el Parlamento de Vitoria-Gazteiz.
- 7d) Están pendientes de ser aprobadas.

8 CONFORME A LA LEGISLACIÓN VIGENTE EN MATERIA DE ACCESO ELECTRÓNICO...

- 8a) La administración no ha de conservar en soporte electrónico los documentos electrónicos si no quiere.
- 8b) La administración elige siempre la aplicación que quiera para relacionarse con la ciudadanía, con independencia de su precio.
- 8c) La sede electrónica es el lugar donde están situados los servidores de la administración pública de que se trate.
- 8d) Existirá personal de la Administración capacitado y preparado para ayudar al ciudadano a tramitar electrónicamente.

